# OINARRIZKO HEZKUNTZARAKO DEKRETU BERRIA

- Legedi-oinarria
- Hezkuntza-sistema
- Ikasketa berriak ezartzeko egutegia
- Gaitasunak-Curriculumaren ardatza
- Irakasleriari esker-ona, laguntza eta balorazioa
- Ikastetxeko heziketa-proiektua
- Hizkuntzan tratamendua: Elebitasuna eta eleaniztasuna. Ikastetxeko hizkuntza-proiektua
- Ikastetxeko curriculum -proiektua
- Ikasgelako curriculum-plangintza
- Irakasle-taldea
- Tutoretza eta orientazioa
- Diagnostiko-ebaluazioa
- Legedi-xedapenen Aplikazioa
- Dekretu Berriaren Kontu aipagarrienak

*LEY ORGÁNICA 2/2006, de 3 de mayo, de Educación (BOE 4/05/2006)*

*REAL DECRETO 806/2006, de 30 de junio, por el que se establece el calendario de aplicación de la nueva ordenación del sistema educativo, establecida por la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación (BOE 14/07/2006)*

- *REAL DECRETO 1630/2006, de 29 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas del segundo ciclo de Educación infantil (BOE 4/01/2007)*
- *REAL DECRETO 1513/2006, de 7 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas de la Educación primaria (BOE 8/12/2006)*
- *REAL DECRETO 1631/2006, de 29 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas correspondientes a la Educación Secundaria Obligatoria (BOE 5/01/2007)*
- *REAL DECRETO 1538/2006, de 15 de diciembre, por el que se establece la ordenación general de la formación profesional del sistema educativo (BOE 3/01/2007)*

- *REAL DECRETO 1629/2006, de 29 de diciembre, por el que se fijan los aspectos básicos del currículo de las enseñanzas de idiomas de régimen especial reguladas por la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación (BOE 4/01/2007)*
- *ORDEN ECI/1845/2007, de 19 de junio, por la que se establecen los elementos de los documentos básicos de evaluación de la educación básica regulada por la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación, así como los requisitos formales derivados del proceso de evaluación que son precisos para garantizar la movilidad del alumnado (BOE 22/06/2007)*

**175/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzako curriculuma sortu eta ezartzekoa**




Iturria: www.mec.es

# Ezartzeko Egutegia

*REAL DECRETO 1630/2006, de 29 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas del **segundo ciclo de Educación infantil** (BOE 4/01/2007)*

**2008-2009 Lehen eta Bigarren Zikloak**

**2007-2008 Lehenengo zikloa aurreratzeko aukera**

*REAL DECRETO 1513/2006, de 7 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas de la Educación primaria (BOE 8/12/2006)*

**2007-2008 Lehenengo Zikloa**
**2008-2009 Bigarren Zikloa**
**2009-2010 Hirugarren Zikloa**

*REAL DECRETO 1631/2006, de 29 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas correspondientes a la Educación Secundaria Obligatoria (BOE 5/01/2007)*

**2007-2008 1. eta 3.a**
**2008-2009 2.a eta 4.a**

**2007-2008 Titulua lortzeko baldintzak**
**Ezarpena bukatu bitartean: Helburuak, ez gaitasunak**

**2007-2008 Curriculum anitzeko programak**

**2008-2009 Hasierako lanbide-prestakuntzako programak**

*REAL DECRETO 1467/2007, de 2 de noviembre, por el que se establece la estructura del bachillerato y se fijan sus enseñanzas mínimas (BOE 6/11/2007). Corrección de errores (BOE 7/11/2007)*

**2008-2009 .a**
**2009-2010 2.a**
**2009-20010 USHP berriak**

*REAL DECRETO 1538/2006, de 15 de diciembre, por el que se establece la ordenación general de la formación profesional del sistema educativo (BOE 3/01/2007)*

**2007-2008 Ezarpenaren hasiera**

*Evaluación de diagnostico*

**2008-2009 LHko 2. zikloaren bukaera maila**
**2008-2009 2. DBH ESO**

# Gaitasunak

## Ezaugarri orokorreko antolaketako kontuak

### Kontu curricularrak

- Gutxieneko ikaskuntza-edukiak
- Pedagogia-metodoak
- Ebaluaketa
- Mailaz igarotzea
- Aniztasunaren trataera
- Tituluak

**GAITASUNAK**

~~LOGSE~~
~~Hiru mailetako edukiak~~

~~LOCE~~
~~Ahalmenak~~

LOE
Oinarrizko gaitasunak

**Dekretua**
Hezkuntza-gaitasun orokorrak eta Oinarrizko gaitasunak

LOE eta Dekretua
Helburuak

***LEY ORGÁNICA 2/2006, de 3 de mayo, de Educación (BOE 4/05/2006)***

Artículo 6. *Currículo.*

1. A los efectos de lo dispuesto en esta Ley, se entiende por currículo el conjunto de objetivos, competencias básicas, contenidos, métodos pedagógicos y criterios de evaluación de cada una de las enseñanzas reguladas en la presente Ley.

2. **Con el fin de asegurar una formación común y garantizar la validez de los títulos correspondientes**, el Gobierno fijará, en relación con los objetivos, competencias básicas, contenidos y criterios de evaluación, los **aspectos básicos del currículo que constituyen las enseñanzas mínimas** a las que se refiere la disposición adicional primera, apartado 2, letra c) de la Ley Orgánica 8/1985, de 3 de julio, Reguladora del Derecho a la Educación.

# Gaitasunak

**“Gaitasun giltzarriak" kontzeptua, Europar Batasuneko erakundeak onartu duena, herritar guztiek ezinbestez lortu beharreko ezugutza, trebezia eta jarrerei dagokio, horrela hauek gizartearen era aktiboki bizi ahal izateko.**

**3. artikulua.- Printzipio orokorrak.**

3.- Oinarrizko Hezkuntzako jakintza-arloek eta irakasgaiek beren baitan jasoko dituzte **hezkuntza-gaitasun orokorrak; hala, jakintza arloek zein irakasgaiek ikuspegi guztietatik landuko dituzte oinarrizko gaitasun horiek**. Jakintza-arlo eta irakasgaien artean izango dira Euskal Herriko hizkuntzari eta gizarte- eta kultura ondare propio eta berezkoari dagozkionak.

*REAL DECRETO 1630/2006, de 29 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas del segundo ciclo de Educación infantil (BOE 4/01/2007). Anexo.*

*REAL DECRETO 1513/2006, de 7 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas de la Educación primaria (BOE 8/12/2006). Arts. 5 y 6.*

*REAL DECRETO 1631/2006, de 29 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas correspondientes a la Educación Secundaria Obligatoria (BOE 5/01/2007). Arts. 6 y 7.*

# Gaitasunak

## 6. artikulua.- Hezkuntza-gaitasun orokorrak

1. Hezkuntza osorako nahiz oinarrizko hezkuntzarako ardatz erreferentzialak dira hezkuntza-gaitasun orokorrak, eta hezkuntza testuinguru guztietan ikasten dira, bai formaletan, bai informaletan. Hezkuntza-gaitasun orokorrak komunak dira Oinarrizko Hezkuntzako jakintza-arlo eta irakasgai guztietan, eta lortu nahi diren xedeen eta arlo eta irakasgai guztien arteko lotura-elementuak edo bitartekariak dira; hala, hezkuntza-gaitasun orokorren bidez, jakintza-arloek zein irakasgaiek handitu egiten dute hezkuntza planteamendu oso baterako eta oinarrizko gaitasunak eskuratzeko egiten duten ekarpena.

2. Hauek dira hezkuntza oso baterako ardatz erreferentzialak, maila pertsonalean, familiarrean, soziokulturalean, akademikoan eta profesionalean:

a) Arduraz eta autonomiaz bizitzen ikastea
b) Modu kritiko batean ikasten eta pentsatzen ikastea
c) Bi hizkuntza ofizialetan, eta, gutxienez, atzerri-hizkuntza
d) batean hitz egiten ikastea
e) Elkarrekin bizitzen ikastea
f) Pertsona gisa garatzen ikastea
g) Egiten eta ekiten ikastea

# Gaitasunak

## 7. artikulua.- Oinarrizko gaitasunak.

1. Testuinguru edo egoera anitzek eskatutako jakintza, trebetasunak, jarrerak eta balioak konbinatzean datza oinarrizko gaitasunen funtsa, eta gaitasun horiek eskuratu behar dituzte Oinarrizko Hezkuntzako ikasle guztiek, bai pertsona gisa errealizatzeko eta garatzeko, bai herritar aktiboak izateko eta gizarteratzeko.
2. Hauek dira Oinarrizko Hezkuntzako curriculumeko oinarrizko gaitasunak:

a) Kultura zientifiko eta teknologikorako eta osasunerako gaitasuna
b) Ikasten ikasteko gaitasuna
c) Matematika-gaitasuna
d) Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna
e) Gaitasun digitala eta informazioaren trataerakoa
f) Gizarte- eta hiritar-gaitasuna
g) Giza eta arte-kulturarako gaitasuna
h) Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

3.- Jakintza-arloak eta irakasgaiak landuz eskuratzen dira oinarrizko gaitasunak. Baina ez da hori gaitasunak eskuratzeko modu bakarra, eskolako nahiz eskolaz kanpoko bizipenen bidez ere eskuratzen baitira, eta, besteak beste, ikastetxeen organizazioaren eta funtzionamenduaren bidez, irakaskuntza-jardueren bidez, hezkuntza-komunitateko kideen artean ezarritako harreman-moduen bidez eta programatutako jarduera osagarri eta eskolaz kanpokoen bidez.

# Oinarrizko gaitasunak

## OINARRIZKO GAITASUNEN PROPOSAMENAREN JUSTIFIKAPENA

Europar Batasuneko gomendioak betez, eta unibertsitatekoa ez den erreferentzia-eremua homogeneoa izan dadin, horrela EAEko hezkuntza-sistemaren emaitzak europar eta espainiar beste hezkuntza-sistemarekin konparatu ahal izateko, EAEko hezkuntza-sistemak Europar Batasunak ezarri dituen gaitasunak bereganatzen ditu.

## Funciones del profesorado

LOE. Artículo 91. *Funciones del profesorado.*

**1. Las funciones del profesorado son, entre otras, las siguientes:**

a) La programación y la enseñanza de las áreas, materias y módulos que tengan encomendados.
b) La evaluación del proceso de aprendizaje del alumnado, así como la evaluación de los procesos de enseñanza.
c) La tutoría de los alumnos, la dirección y la orientación de su aprendizaje y el apoyo en su proceso educativo, en colaboración con las familias.
d) La orientación educativa, académica y profesional de los alumnos, en colaboración, en su caso, con los servicios o departamentos especializados.
e) La atención al desarrollo intelectual, afectivo, psicomotriz, social y moral del alumnado.
f) La promoción, organización y participación en las actividades complementarias, dentro o fuera del recinto educativo, programadas por los centros.
g) La contribución a que las actividades del centro se desarrollen en un clima de respeto, de tolerancia, de participación y de libertad para fomentar en los alumnos los valores de la ciudadanía democrática.
h) La información periódica a las familias sobre el proceso de aprendizaje de sus hijos e hijas, así como la orientación para su cooperación en el mismo.
i) La coordinación de las actividades docentes, de gestión y de dirección que les sean encomendadas.
j) La participación en la actividad general del centro.
k) La participación en los planes de evaluación que determinen las Administraciones educativas o los propios centros.
l) La investigación, la experimentación y la mejora continua de los procesos de enseñanza correspondiente.

**2. Los profesores realizarán las funciones expresadas en el apartado anterior bajo el principio de colaboración y trabajo en equipo.**

## Reconocimiento, apoyo y valoración del profesorado

LOE. Artículo 104. *Reconocimiento y apoyo al profesorado.*

1. Las Administraciones educativas velarán por que el profesado reciba el trato, la consideración y el respeto acordes con la importancia social de su tarea.

2. Las Administraciones educativas prestarán una atención prioritaria a la mejora de las condiciones en que el profesorado realiza su trabajo y al estímulo de una creciente consideración y reconocimiento social de la función docente.

3. Dada la exigencia de formación permanente del profesorado y la necesidad de actualización, innovación e investigación que acompaña a la función docente, el profesorado debidamente acreditado dispondrá de acceso gratuito a las bibliotecas y museos dependientes de los poderes públicos. Asimismo, podrán hacer uso de los servicios de préstamo de libros y otros materiales que ofrezcan dichas bibliotecas. A tal fin, los directores de los centros educativos facilitarán al profesorado la acreditación correspondiente.

## LOE. Artículo 121. *Proyecto educativo.*

1. El proyecto educativo del centro recogerá los valores, los objetivos y las prioridades de actuación. Asimismo, incorporará la concreción de los currículos establecidos por la Administración educativa que corresponde fijar y aprobar al Claustro, así como el tratamiento transversal en las áreas, materias o módulos de la educación en valores y otras enseñanzas.
2. Dicho proyecto, que deberá tener en cuenta las características del entorno social y cultural del centro, recogerá la forma de atención a la diversidad del alumnado y la acción tutorial, así como el plan de convivencia, y deberá respetar el principio de no discriminación y de inclusión educativa como valores fundamentales, así como los principios y objetivos recogidos en esta Ley y en la Ley Orgánica 8/1985, de 3 de julio, Reguladora del Derecho a la Educación.
3. Corresponde a las Administraciones educativas establecer el marco general que permita a los centros públicos y privados concertados elaborar sus proyectos educativos, que deberán hacerse públicos con objeto de facilitar su conocimiento por el conjunto de la comunidad educativa. Asimismo, corresponde a las Administraciones educativas contribuir al desarrollo del currículo favoreciendo la elaboración de modelos abiertos de programación docente y de materiales didácticos que atiendan a las distintas necesidades de los alumnos y del profesorado.
4. Corresponde a las Administraciones educativas favorecer la coordinación entre los proyectos educativos de los centros de educación primaria y los de educación secundaria obligatoria con objeto de que la incorporación de los alumnos a la educación secundaria sea gradual y positiva.
5. **Los centros promoverán compromisos educativos entre las familias o tutores legales y el propio centro en los que se consignen las actividades que padres, profesores y alumnos se comprometen a desarrollar para mejorar el rendimiento académico del alumnado**.
6. El proyecto educativo de los centros privados concertados, que en todo caso deberá hacerse público, será dispuesto por su respectivo titular e **incorporará el carácter propio** al que se refiere el artículo 115 de esta Ley.

## 17. artikulua.- Ikastetxeko heziketa-proiektua.

1.- Dekretu honen baitan, **ikastetxeak egindako hezkuntza-aukera eta hark ezarritako jardunbide-ildo nagusiak jasotzen dituen proposamenagiri osoa** izango da Ikastetxeko Heziketa Proiektua, hezkuntza komunitateak ikastetxean egingo duen hezkuntzako esku-hartzea koherentziaz zuzentzeko erreferentziatzat erabiliko dena.

2.- Honako hauek jasoko ditu Ikastetxeko Heziketa Proiektuak: hezkuntza-jardueraren balioak, helburuak eta lehentasunak; **ikaskuntza-prozesuan zer hizkuntza erabiliko diren finkatzeko irizpideak** eta aukera askeko irakasgaien eskaintza egiteko erabiliko direnak; ebaluazio-prozesuko alderdi orokorrak; tutoretzako ekintza plana eta aniztasunaren trataerarako neurriak; eta ikastetxeak erabakitako bestelako alderdiak. Hori guztia finkatzeko, euskal gizartearen eta ikastetxearen beraren testuinguru sozioekonomikoari eta kulturalari erreparatu behar zaio, bai eta ikasleen ezaugarriei eta premiei ere. Halaber, aintzat hartu behar da hezkuntza-helburuak lortzeko eta oinarrizko gaitasunak eskuratzeko bidea erraztea izan behar duela agiri horrek finkatutako neurrien helburua.

3.- Ikastetxeetako ordezkaritza-organo gorenaren eta itundutako ikastetxe pribatuetako ordezkaritza-organo titularraren egitekoa izango da ikastetxeko heziketa-proiektua onartzea. Agiri hori argitara eman beharko da.

4.- Ikastetxeek, halaber, familiekiko, profesionalekiko etaikaslearekiko konpromisoak sustatuko dituzte, batzuek zein besteek zer eginkizun eta jarduerak egiteko konpromisoa hartuko duten zehazteko eta heziketa-prozesua errazteko.

5. Ikastetxeek, beren autonomia erabilita eta arautudako esparruaren barruan, esperimentazio-saioak eta lan-planak egin ditzakete, antolamendu-moduak probatu eta eskola-ordutegia handitu; baina, betiere, familiei ekarpenak egitera behartu gabe eta hezkuntza administrazioari eskakizunik egin gabe.

## LOE. Artículo 115. *Carácter propio de los centros privados.*

1. Los titulares de los centros privados tendrán derecho a establecer el carácter propio de los mismos que, en todo caso, deberá respetar los derechos garantizados a profesores, padres y alumnos en la Constitución y en las leyes.
2. El carácter propio del centro deberá ser puesto en conocimiento por el titular del centro a los distintos sectores de la comunidad educativa, así como a cuantos pudieran estar interesados en acceder al mismo. La matriculación de un alumno supondrá el respeto del carácter propio del centro, que deberá respetar a su vez, los derechos de los alumnos y sus familias reconocidos en la Constitución y en las leyes.
3. Cualquier modificación en el carácter propio de un centro privado, por cambio en la titularidad o por cualquier otra circunstancia, deberá ponerse en conocimiento de la comunidad educativa con antelación suficiente. En cualquier caso, la modificación del carácter propio, una vez iniciado el curso, no podrá surtir efectos antes de finalizado el proceso de admisión y matriculación de los alumnos para el curso siguiente.

## 13. artikulua.- Elebitasuna eta eleaniztasuna.

1.- Hezkuntza-sistema elebiduna sendotzeko eta Oinarrizko Hezkuntza amaitzean Euskal Autonomia Erkidegoko bi hezkuntza ofizialetan komunikatzeko gaitasuna eskuratzeko neurriak hartuko ditu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak; betiere, hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoaren baitan eta Eusko Legebiltzarrak gaiari buruz arautzen duena betez. Xede hori lortzeko, ikastetxeek euskara eta gaztelania landuko dituzte, bi hizkuntza horiek ulertzeko eta ahoz eta idatziz adierazteko trebetasunak eskura ditzaten ikasleek. Xedeada bi hizkuntza horiek harremanetarako eta erabilerako hizkuntzak izatea eta eremu pertsonalean, sozialean eta akademikoan erabiltzea.

2.- Aurreko paragrafoan adierazitako helburuak lortzeko,ikastetxeek, beren heziketa-proiektua aintzat hartuta, beren ezaugarrietara moldatu eta egokituko dute Dekretu honek egindako curriculum-planteamendua; halaber aintzat hartuko dute hizkuntzak komunikazio-hizkuntza gisa erabiltzea dela bide egokiena elebitasunaren helburua lortzeko eta jakintza-arlo eta irakasgai bakoitzeko curriculum-edukiak irakasteko. Euskara izango da komunikazio-hizkuntza nagusia eskola-esparruan.

3.- Elebitasuna oinarri hartuta, ikasle eleanitzak sortzeko xedea erdiesteko, atzerri-hizkuntzen ikaskuntza eta erabilpenak finkatzeko neurriak ezarriko dituzte ikastetxeek, eta bermatu egingo dute bete egiten direla bi hizkuntzetarako ezarrita dauden gaitasun-mailak. Ikastetxeek aukera izango dute zenbait irakasgai atzerri-hizkuntza horietan irakasteko, horretarako arautzen diren baldintzak betez.

4.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak aukera emango du ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikasitako hizkuntzen jakintza-ziurtagiri ofizialak eskuratzeko proba homologatuak egin ditzaten, eta, horrekin batera, sustatu egingo du Batxilergoko ikasketak egiten jarraituko ez duten ikasleek hizkuntza-ikasketak egiteko aukera izan dezaten.

## 18. artikulua.- Ikastetxeko hizkuntza-proiektua.

1.- Dekretu honen baitan, hizkuntzen irakaskuntzarekin eta erabilpenarekin lotutako alderdi guztien plangintza egingo duen agiria izango da hizkuntza-proiektua, ikastetxeek egindakoa, beren hezkuntza-esparruan aplikatzeko. Heziketa-proiektuan jasotako ikaskuntza-prozesuan hizkuntzak nola irakatsiko eta erabiliko diren finkatuko du hizkuntza-proiektuak, eta zehaztu egingo zer-nolako trataera izango duten hizkuntzek curriculum-proiektuan. Agiri horretan jasotako erabakiek eragin zuzena izango dute ikastetxeko beste agiri batzuetan; esaterako, barne-araudian, urteko plangintzan, barne- eta kanpo-harremanak arautuko dituzten printzipioetan, eta abarretan. Izan ere, azken horien bidez gauzatuko dira hizkuntza-proiektuan adostutako printzipioak.

2.- Ikastetxeek heziketa-proiektuaren barruan jasoko dute beren hizkuntza-proiektua.

*REAL DECRETO 1513/2006, de 7 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas de la educación primaria (BOE 8/12/2006). Anexo III (nota final) y disposición adicional segunda.*

*REAL DECRETO 1631/2006, de 29 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas correspondientes a la Educación Secundaria Obligatoria (BOE 5/01/2007). Anexo III (nota final) y disposición adicional tercera.*

## 19. artikulua.- Ikastetxeko curriculum-proiektua.

1.-Dekretu honen baitan, Dekretu honek araututako curriculumak ikastetxe bakoitzean duen zehaztapena izango da curriculum proiektua.

2.-Curriculum-proiektuak ikastetxearen testuinguru sozioekonomikora eta kulturalera, ikasleen ezaugarri eta premietara, eta ikastetxearen hizkuntza-aukeretara eta baliabideetara egokitu behar du dekretu honen eranskinetan araututako curriculuma; betiere, ikastetxeko heziketa-proiektua erreferentziatzat hartuta. Hala, curriculum-proiektuak Oinarrizko Hezkuntzako irakaskuntza-edukiak zehaztuko ditu Lehen Hezkuntzako zikloetarako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila guztietarako, eduki horiek dekretu honetan araututako curriculum ofiziala betez irakatsi daitezen.

3.-Ikastetxeko curriculum-proiektuak honako alderdi hauek finkatuko ditu, gutxienez:

- Hezkuntza-jarduerari lotutako gaitasunak, helburuak eta edukiak, ikasleen beharrei egokitutakoak, irakaskuntza-alderdi guztietan jasoak.
- Ziklo edo ikasturte bakoitzeko ebaluazio-irizpideen zehaztapena, etapa bakoitza amaitzean eskuratu beharreko gutxieneko gaitasun mailak, eta ikasleen ebaluazio- eta promozio-prozesuari buruzko erabakiak.
- Hizkuntza-proiektuko curriculum-alderdiak.
- Pedagogia-irizpideen eta irizpide didaktikoen zehaztapena, bai eta metodologia-aukerena eta curriculum-materialei buruzkoa ere Irizpide horiek bermatu egin behar dute ikastetxeko irakasleek jarraikortasunez eta koherentziaz lan egingo dutela
- Hezkuntza-laguntzaren premia berariazkoa duten ikasleen egoera osotasunean tratatzeko irizpideak, bai hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleena, bai gaitasun indibidual handiak dituztenena, bai hezkuntza-sistemara berandu sartu direnena.
- Aukeramenari eta curriculum anitzeko alderdiei buruzko erabakiak.
- Tutoretza-ekintzarako irizpideak eta hezkuntza-orientazioa egiteko moduari buruzkoak.

4.- Hezkuntza-etapa bat baino gehiago irakasten dituzten ikastetxeetako curriculum-proiektuek zehaztu egingo dute hezkuntzaetapa bakoitzaren ezaugarriak, haien arteko koherentzia zainduz.

## 20. artikulua.- Ikastetxeko curriculum-proiektua egitea.

1.- Zikloak eta ikasturteak ezartzen diren neurriak egingo dute ikastetxeek curriculum-proiektua. Ezarpen-prozesua amaituta, Hezkuntza Administrazioari aurkeztuko zaio curriculum-proiektua, eta azken horrek, hezkuntzako ikuskaritzaren txostena jaso ondoren, curriculum-proiektuak hari aplikagarri zaizkion arauak betetzen dituen ala ez erabakiko du, eta, horri erreparatuta, proiektuaren bideragarritasunari buruzko oharrak egingo ditu.

2.- Ikastetxe publikoetan eta itunduetan, irakasleen klaustroak egin beharko du curriculum-proiektua. Klaustroari dagokio curriculumproiektua onartzea, baina, hura onartu aurretik, eskola-kontseiluari entzun beharko zaio ikastetxe pribatuetan, eta ordezkaritza-organo gorenari ikastetxe publikoetan. Curriculum-proiektuan xedatutakoak urteko planaren bidez gauzatuko dira ikasturtean zehar, eta, zehazki, irakaskuntza-jardueretako programaren bidez eta prestakuntza-jardueretako, eskolaz kanpoko jardueretako eta jarduera osagarrietako programaren bidez.

3.- Finantziazio publikorik gabeko ikastetxe pribatuetan, curriculum-proiektua nork egin eta onartu behar duen jakiteko, eskumenen barne-banaketari erreparatu beharko zaio.

4.- Ikastetxean irakasten diren hezkuntza-etapa guztiak landuko ditu curriculum-proiektuak. Hasierako hezkuntza-etapetatik ikasleak jaso ohi dituzten ikastetxeetan, etapa bakoitzeko curriculum-proiektuak egiteko prozesua koordinatzeko batzorde bat eratuko da, etapa horien arteko koherentzia bermatzeko.

5.- Ikasturte hasieran, jakitera eman beharko dira maila bakoitzean gainditu beharreko gutxieneko helburuak eta ikastetxearen curriculum-proiektuan onartutako ebaluazio-irizpideak.

## 21. artikulua.- Ikasgelako curriculum-plangintza.

1.- Ikastetxeko curriculum-proiektuari jarraituz egingo dute irakasleek beren irakaskuntza-jarduna, hura ikasleen berariazko ezaugarrietara egokituz.

2.- Ziklo edo, hezkuntza-etaparen arabera, ikasturte bereko ikasketak irakasten dituzten irakasleek koordinatu egingo dituzte ikasgela-programazioak, elkarren arteko koherentzia izan dezaten.

3.- Jakintza-arlo edo irakasgai bera irakasten duten irakasleek elkarrekin egingo dute lan ikasgelako curriculum-programazioa egiteko, elkarlan horren bidez bermatuta izan daitezen bai ikasketen koordinazioa, bai jakintza-arloak ikasten ari diren ikasleen aukera berdintasuna, eta hezkuntza-etapako nahiz Oinarrizko Hezkuntzako ikasketen progresioa.

## 22. artikulua.- Irakasle-taldea.

1.- Ikasgela batean esku-hartzen duten irakasleek osatzen dute irakasle-taldea. Antolamendu-neurriez baliatuz, Oinarrizko Hezkuntzako ikasletan esku-hartzen duten irakasleen kopurua murrizten ahaleginduko dira ikastetxeak; batik bat, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen mailetan eta Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programetan. Halaber, posible den heinean, jakintza-arloak irakasten dituzten irakasleek ez dute ikasle-taldez aldatuko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan zehar.

*Equipo docente: REAL DECRETO 1631/2006, de 29 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas correspondientes a la Educación Secundaria Obligatoria (BOE 5/01/2007). Art. 10.*

## 23. artikulua.- Tutoretza- eta orientazio-arloa.

1.- Hezkuntza-orientazioa etengabeko laguntza-prozesu sistematikoa da, hezkuntza-jardueraren baitan ematen dena, eta bere helburua da ikasleei gaitasunak eskuratzeko laguntza ematea, beren proiektu pertsonalaren eta profesionalaren jabe izan daitezen.

2.- Tutoretza-planak antolatzen ditu, ikastetxeko heziketa proiektuaren baitan, ikasle guztiei zuzendutako orientazioko eta bestelako ekintzak, eskolaldi osoan tutoretza-jardueretan landuko direnak. Horien helburua da ikasleek oinarrizko gaitasunak eskuratzea.

3.-Tutoreei dagokie plan hori aurrera eramatea, irakasle-taldearekin eta ikasle-taldearengan eragiten duten gainerako eragileekin batera. Ikastetxean orientazio-lanetan aritzen diren profesionalek lagundu egingo diote tutoreari lan horretan.

4.-Ikastetxeetako tutoretza—planek atal hauek izango dituzte, gutxienez:

- Tutoretzan landuko diren gaitasun, helburuak eta edukiak (ikasleei emandako orientazioari eta haien jarraipena egiteari,buruzkoak), ikasleen premiei egokituta.
- Tutoreak ikasleekiko, irakasle-taldearekiko eta familiekiko egin beharreko lanak eta bestelako lanak.
- Ekintza horiek ikasturtean zehar egiteko plangintza.
- Tutoretza-plana ebaluatzeko irizpideak.

5.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak jarraibideak emango ditu Oinarrizko Hezkuntzako tutoretza-planak egin eta aurrera eramateko.

6.- Tutoreak, irakasle-taldearen aholkularitza jasota, eskola orientazio indibidualeko txosten bat egingo du, familiei informazioa emateko eta ikasleei orientazioa emateko, dauden aukeren artean hautaketa bat egiteko. Txosten hori etapa bakoitzaren amaieran egingo da, gutxienez, eta baita aparteko inguruabarrek hala eskatzen badute, esaterako, ikasle batez zikloz edo ikasturtez igaro behar ez badu. <u>Txosten horiek guztiak isilpekoak izango dira</u>. Lehen Hezkuntza amaitzean egingo den txosten indibidualak adierazi behar du, gutxienez, ikasleak zenbateraino eskuratu dituen ikas edukiak; batik bat, ikasle horren hezkuntza-garapena gehien baldintzatuko dutenak. Halaber, ikaslearen banakako arreta bermatzeko funtsezkotzat jotzen diren alderdiak jaso beharko ditu txosten horrek. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren edo hasierako lanbide prestakuntzako programen amaieran egindako txostenak etorkizun akademikoari edo lanbidezkoari buruzko orientazioa eman behar dio ikasleari.

*LEY ORGÁNICA 2/2006, de 3 de mayo, de Educación (BOE 4/05/2006). Art. 121.*

*REAL DECRETO 1513/2006, de 7 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas de la educación primaria (BOE 8/12/2006). Art. 11.*

*REAL DECRETO 1631/2006, de 29 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas correspondientes a la Educación Secundaria Obligatoria (BOE 5/01/2007). Art. 19.*

## LOE. Preámbulo.

Una de las novedades de la Ley consiste en la realización de una evaluación de diagnóstico de las competencias básicas alcanzadas por el alumnado al finalizar el segundo ciclo de esta etapa, que tendrá carácter formativo y orientador, proporcionará información sobre la situación del alumnado, de los centros y del propio sistema educativo y permitirá adoptar las medidas pertinentes para mejorar las posibles deficiencias. Otra evaluación similar se llevará a cabo al finalizar el segundo curso de la educación secundaria obligatoria. Para favorecer la transición entre la primaria y la secundaria, el alumnado recibirá un informe personalizado de su evolución al finalizar la educación primaria e incorporarse a la etapa siguiente.

## LOE. Artículo 21. *Evaluación de diagnóstico.*

Al finalizar el segundo ciclo de la educación primaria todos los centros realizarán una evaluación de diagnóstico de las competencias básicas alcanzadas por sus alumnos. Esta evaluación, competencia de las Administraciones educativas, tendrá carácter formativo y orientador para los centros e informativo para las familias y para el conjunto de la comunidad educativa. Estas evaluaciones tendrán como marco de referencia las evaluaciones generales de diagnóstico que se establecen en el artículo 144.1 de esta Ley.

## LOE. Artículo 29. *Evaluación de diagnóstico.*

Al finalizar el segundo curso de la educación secundaria obligatoria todos los centros realizarán una evaluación de diagnóstico de las competencias básicas alcanzadas por sus alumnos. Esta evaluación será competencia de las Administraciones educativas y tendrá carácter formativo y orientador para los centros e informativo para las familias y para el conjunto de la comunidad educativa. Estas evaluaciones tendrán como marco de referencia las evaluaciones generales de diagnóstico que se establecen en el artículo 144.1 de esta Ley.

## LOE. Artículo 145. *Evaluación de los centros.*

1. Podrán las Administraciones educativas, en el marco de sus competencias, elaborar y realizar planes de evaluación de los centros educativos, que tendrán en cuenta las situaciones socioeconómicas y culturales de las familias y alumnos que acogen, el entorno del propio centro y los recursos de que dispone.
2. Asimismo, las Administraciones educativas apoyarán y facilitarán la autoevaluación de los centros educativos.

## 36. artikulua. Diagnostiko-ebaluazioa.

**1. Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren maila amaitzean gutxienez, diagnostikoebaluazio bat egingo da. Ebaluazio horrek ez du ondorio akademikorik izango, eta prestakuntzazkoa eta orientatzailea izango da ikastetxeentzat eta informaziozkoa familientzat eta hezkuntza komunitate osoarentzat.**

**2. Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak ereduak eta laguntza emango die ikastetxeei, ebaluazioak behar bezala egin ditzaten.**

**3. Ikastetxeek aintzat hartuko dute ebaluazio horietako informazioa, besteak beste, ikasleei emandako heziketa hobetzeko neurriak eta programan antolatzeko eta ikasleek oinarrizko gaitasunak eskuratuko dituztela bermatzeko. Halaber, emaitza horiek baliagarriak izando dira, irakaskuntza-prozesuen eta irakaskuntza-jardunaren ebaluazioaren emaitzekin batera, aurreko ikasturteetan egindako jarduerak aztertzeko, baloratzeko, eta, beharrezko ikusten bada, egokitzeko.**

**4. Ebaluazio horien bidez lortutako informazioa erabiltzeko, bete egin beharko da abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, datu pertsonalak babesteari buruzkoa. Taldeei, jakintza-arloei eta ikastetxeei buruzko estatistikak egiteko eta aurreko paragrafoan adierazitako helburuak betetzeko erabiliko da informazioa; betiere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak horri buruz arautzen duenarekin bat etorriz. Ezingo dira ebaluazio horiek erabili ikastetxeen arteko sailkapenak egiteko.**

**5.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak arautuko du zer prozedura erabiliko den ebaluazio horiek prestatzeko eta egiteko.**

# LOE. **Disposición transitoria undécima. *Aplicación de las normas reglamentarias.***

En las materias cuya regulación remite la presente Ley a ulteriores disposiciones reglamentarias, y en tanto éstas no sean dictadas, serán de aplicación, en cada caso, las normas de este rango que lo venían siendo a la fecha de entrada en vigor de esta Ley, siempre que no se opongan a lo dispuesto en ella.

- Haur Hezkuntza
- Eskolatzea
- Ordutegia eta egutegia
- Hizkuntzen tratamendua
- Euskara jakitetik sabuestea
- Erlijio-irakaskuntza
- Ratioak
- AEAko hezkuntza-sisteman berandu sartutako ikasleak
- LHko Arloak
- LHko arloen ordutegia eta banaketa
- Herritartasunerako eta giza Eskubidetarako hezkuntza
- LHko Aniztasunaren trataera
- LHko Ebaluaketa
- LHko Mailaz igarotzea
- DBHko irakasgaiak
- Aukeramena DBHn
- Herritartasunerako eta giza Eskubidetarako hezkuntza
- DBHko mailaz mailako Gaien banaketa
- Esku-hartze espezifikoko proiektuak
- Eskolatze osagarriko programak
- Curriculum anitzeko programak
- Hasierako lanbide-Prestakuntzako programak
- DBHko Ebaluaketa
- DBHko Mailaz igarotzea
- DBHko Graduatu-Titulua

## Sarrera

… bat egin dela Euskal Herri osoan; hala, hausnarketa horren baitan, derrigorrezko eskolaldia (6 urtetik 16 urtera bitartekoa) hartu da haren erreferentziako hezkuntza-esparrutzat, eta haren izaera jarraitua nabarmendu da. Hala ere, eskolaldia, oro har, Haur Hezkuntzan hasten da.

## 3. artikulua.- Printzipio orokorrak.

1.- Oinarrizko Hezkuntzaren xedea da gizakien ahalmenak osorik garatzea; hau da, ahalmen fisikoak, motorrak, kognitiboak, komunikaziokoak, sozialak eta afektiboak garatzea, Haur Hezkuntzan hasitako prozesua dela jakinda.

## 10. artikulua.- Pedagogia-printzipioak

4.- Familiek eta irakasleriak parte-hartze eta inplikazio handia izan behar dute eskola-antolamenduan, eta indartu egin behar da irakasleen hezitzaile-izaera. Hala, bermatu egin behar da Haur Hezkuntzaren, Lehen Hezkuntzaren eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren arteko koordinazioa.

## 32. artikulua.- Eskolatzea

1.- Oro har, sei urte betetzen duten urte naturalean sartuko dira ikasleak Oinarrizko Hezkuntzan, sei urte emango dituzte Lehen Hezkuntzan, eta hamabi urte dituztela eskolatuko dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Lau urte egingo dituzte bigarren hezkuntza etapa horretan, eta, normalean, 16 urte bete arte eskolatuko dira.

2.- Ahalmen intelektual handiko ikasleak identifikatu badira eta ikasle horiei malgutu egin bazaie Lehen Hezkuntzako eskolaldia, aukera izango da ikasle horiei baimentzeko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan sar daitezen hamabi urte betetzen dituzten urte naturala baino lehen.

3. Ikasleek eskubidea izango dute hemezortzi urte betetzen dituzten urteko ikasturtera arte eskolatuak izateko eskola-erregimen arruntean; betiere, **ebaluazio-taldeak iriztzen badu, ikasleen jarrerekin eta interesekin bat etorriz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Titulua eskuratu dezaketela.**

4.- Salbuespenez, Irakaskuntza Berritzeko zuzendariak baimena eman dezake ikasleak 19 urte bete arte iraun dezaten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, baldin eta ikasleak heziketa bereziko geletan eskolatuta badaude ikastetxe arruntetan, ikusteko eta ikusteko ezintasunen edo ezintasun fisikoen ondorioz, hezkuntza-premiak badituzte, eta hezkuntza bereziko laguntza espezializatua jasotzen badute. Baimen hori emateko, ebaluazio-taldeak iritzi behar du ikasle horiek eskuratu egin dezaketela Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua.

5. Aukera izango da hamasei urte beteta izan eta hezkuntza-etapa hori amaitu gabea duten ikasleei baimena emateko ikasketak helduentzako irakaskuntzan amai ditzaten; betiere, ezin badute, lanean ari direlako edo errendimendu handiko kirolariak direlako, erregimen normalean eskolatuta jarraitu.

*LEY ORGÁNICA 2/2006, de 3 de mayo, de Educación (BOE 4/05/2006). Art. 4.*

**14. artikulua.- Ordutegia.**

1.- Lehen Hezkuntzan, 875 orduko ordutegia bete beharko da urtean, ikasturte bakoitzean. Jakintza-arlo bakoitza lantzeko behar den denbora izango da arlo bakoitzari esleitutako ordutegia, betiere, alde batera utzi gabe hezkuntza-etapa horren izaera orokorra eta integratzailea.

2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, 1.050 orduko ordutegia bete beharko da urtean, ikasturte bakoitzean.

4.- Eskola-egunek goizeko eta arratsaldeko saioak izango dituzte. Asteko arratsalde bat irakasle guztien parte hartzea eskatzen duten lanak egiteko erabiltzea baimen dezake Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, baina horrek ez du esan nahi ikasleen asteko ordutegia murriztu behar denik. Salbuespenezko arrazoiak beharko dira eskola-egunak beste modu batera antolatzeko.

## 15. artikulua.- Eskola-egutegia.

1. Ikastetxearen heziketa-proiektuarekiko koherentziaz erabakiko du ikastetxe bakoitzak bere eskola-egutegia. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, urtero, erreferentziazko eskola-egutegia bat finkatuko du. Egutegi horrek 175 irakastegun izango ditu, gutxienez.

*Calendario: LEY ORGÁNICA 2/2006, de 3 de mayo, de Educación (BOE 4/05/2006). Adicional quinta.*

## I. ETA II.ERANSKINETAKO KOMENTARIOA

Hizkuntza bati baino gehiagori komunak zaizkien edukiak batera irakatsi daitezke; esaterako, hizkuntza-egiturak. Eduki komunen azalpeneko hizkuntza euskara ez bada, bermatu egingo da ikasleak euskal hizkuntza eta literaturako irakaspenak edo euskaraz emandako irakaspenak jasotzen dituela, gutxieneko ordu-kopuru batez. Ordu-kopuru hori, ziklo bakoitzean, ez da izango area bakoitzarentzat aurreko taulan adierazitakoa baino txikiagoa. Eduki komunen azalpeneko hizkuntza gaztelania ez bada, bermatu egingo da ikasleak gaztelania eta literaturako irakaspenak edo gaztelaniaz emandako irakaspenak jasotzen dituela, gutxieneko ordu-kopuru batez. Ordu-kopuru hori, ziklo bakoitzean, ez da izango area bakoitzarentzat aurreko taulan adierazitakoa baino txikiagoa. Eduki komunen azalpeneko hizkuntza atzerri-hizkuntza ez bada, bermatu egingo da ikasleak atzerri-hizkuntzako irakaspenak edo atzerri hizkuntzan emandako irakaspenak jasotzen dituela, gutxieneko ordu kopuru batez. Ordu-kopuru hori, ziklo bakoitzean, ez da izango area bakoitzarentzat aurreko taulan adierazitakoa baino txikiagoa.

## 18. artikulua.- Ikastetxeko hizkuntza-proiektua.

2.- Ikastetxeek heziketa-proiektuaren barruan jasoko dute beren hizkuntza-proiektua.

*REAL DECRETO 1513/2006, de 7 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas de la educación primaria (BOE 8/12/2006). Anexo III (nota final) y disposición adicional segunda.*

*REAL DECRETO 1631/2006, de 29 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas correspondientes a la Educación Secundaria Obligatoria (BOE 5/01/2007). Anexo III (nota final) y disposición adicional tercera.*

## 8. artikulua.- Oinarrizko Hezkuntzaren helburuak (Hizkuntzen tratamendua).

3) Komunikatzen ikastea

3a) Zuzen, egoki, autonomiaz eta sormenez ulertzea eta adieraztea euskarazko eta gaztelaniazko ahozko eta idatzizko testuak eta mezuak, eta horiek erabiltzea komunikatzeko, norberaren pentsamenduak antolatzeko, errealitatea interpretatzeko eta hitz egiteko bete behar diren prozesuei buruzko gogoeta egiteko. Literatura irakurtzeari, lantzeari eta aztertzeari ekitea. Hizkuntzetarako Europako Marko Komuneko B2 maila izango da esparru horretako erreferentzia.

3b) Zuzen, egoki eta oinarrizko autonomiaz ulertzea eta adieraztea atzerri-hizkuntza bateko edo gehiagoko ahozko eta idatzizko testuak eta mezuak, eta horiek erabiltzea komunikatzeko, norberaren pentsamenduak antolatzeko, eta hitz egiteko bete behar diren prozesuei buruzko gogoeta egiteko. Hizkuntzetarako Europako Marko Komuneko B1 maila izango da esparru horretako erreferentzia.

**Bigarrena.- Euskara jakitetik salbuestea.**

1.- Aldatu egiten da Hezkuntza eta Kultura Sailak EAEko irakaskuntza ez-unibertsitarioan hizkuntza ofizialen erabilera araupetzeko 1983ko uztailaren 11n eman zuen 138/1983 Dekretuko 5. artikulua, eta hau izango da artikulu horren idazketa berria:

"5. artikulua.- 1. Euskal hizkuntza eta literatura irakasgaiaren ebaluaziotik salbuetsita gera daitezke unibertsitatekoak ez diren ikasketak egiten ari diren ikasle hauek, azaroaren 24ko 10/1982 Legeak —Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa— araututakoari jarraiki: ikasketak euskal hizkuntza eta literatura ematen ez duen hezkuntza sisteman hasi duten ikasleek eta behar bezala justifikatzen dutenek beren ohiko bizilekua ez dagoela EAEn.

2.- Euskal hizkuntza eta literatura irakasgaiaren salbuespena eraginkorra izateko, ikasleak ez du ikasturte bat baino gehiago eman behar euskal hezkuntza-sisteman. Gainerako kasuetan, ikastetxeak banakako lan-planak ezarriko ditu ikasle horientzat. Planak, gehienez, bi eskola-ikasturtekoak izando dira, euskal hezkuntza-sisteman sartzen direnetik kontatzen hasita. Plan hori amaituta, curriculumak euskal hizkuntza eta literaturarako derrigorrez ezarritako mailetara igaroko dira ikasleak."

2.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak salbuespenak baimentzeko prozedura ezarri bitartean, lurralde-ordezkariek erabakiko dituzte eskaerak, aurretik hezkuntza-ikuskaritzako txostena jaso ondoren.

# Lehena.- Erlijio-irakaskuntzak.

1.- Ikasturte-hasieran, erlijio-irakaskuntzak jaso nahi dituzten ala ez adieraziko dute adinez nagusi diren ikasleek eta adingabekoen gurasoek edo tutoreek.

2.- Erlijio-irakaskuntzak jaso nahi dituztenek, hauen artean aukeratu beharko dute:

- erlijio katolikoko irakaskuntzak.
- beste erlijio-konfesio batzuetako irakaskuntzak, baldin eta Estatuak nazioarteko akordioak edo lankidetzakoak izenpetuak baditu erlijio horiekin, eta, betiere, hitzarmen horietan adostutako baldintzetan, edo
-Erlijioen Historia eta Kultura ikastea, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan

3.- Ikastetxeek antolamendu-neurriak hartu dituzte ikasleei behar bezalako hezkuntza-arreta emateko, baldin eta erlijio-irakaskuntzak egitea aukeratu badute. Hala, bermatu egin beharko dute ez dela diskriminaziorik egiten, ikasleak egindako aukera edozein dela ere. Hezkuntza arreta horrek ez berekin ekarriko erlijio-egitatearen ezagutzarekin lotutako curriculum-edukien ikasketa. Halaber, ezingo du bestelako jakintzagaiei dagozkien curriculum-edukien ikasketa ekarri, baldin eta hori egitea erlijio-ikasketak egitea aukera duten ikasleekiko diskriminazio-arrazoitzat jo badaiteke. Ikastetxeek heziketa-proiektuan jaso beharko dituzte antolamendu-neurriak, gurasoek tutoreek eta ikasleek horien berri izan dezaten nahikoa denboraz.

4.- Erlijio katolikoko irakaskuntzen eta Erlijioen Historiako eta Kulturako irakaskuntzen ebaluazioa egiteko, hezkuntza-etapako gainerako irakasgaietako prozedurak erabiliko dira eta ebaluazioaren ondorioak berdinak izango dira, hala badagokio. Estatuak erlijio konfesioekin izenpetutako lankidetza-akordioetan ezarritakoari jarraituko zaio, erlijio-konfesio horietako irakaskuntzen ebaluazioa egiteko.

5.- Erlijio katolikoaren irakaskuntza-curriculuma eta, Estatuak hezkuntza-arloan lankidetza-akordioak izenpetuta dituen heinean, gainerako erlijio-konfesioetako irakaskuntzen curriculuma eliza hierarkiak eta erlijio-konfesioetako erlijio-agintariek ezarriko dute. Dekretu honetako V. eranskinean araututakoa izango da Erlijioen Historia eta Kultura irakasgaiaren curriculuma, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

6.- Ikasleen arteko berdintasuna eta lehia askearen printzipioa bermatzeko, erlijio-irakaskuntzen ebaluazioan lortutako kalifikazioak ez dira konputatuko ikasketa-espedienteen arteko lehiaren bidez erabakitzen diren deialdietan, ezta ikasleak onartzeko batez besteko kalifikazioa eskatzen dituzten deialdietan ere, baldin eta batez besteko horri erreparatuko bazaio eskatzaileen artean erabakitzeko.

## 16. artikulua.- Ratioak

1.- Lehen Hezkuntzan, 25 ikaslek osatuko dute, gehienez, unitate bakoitza, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, berriz, gehienezko kopurua 30 ikaslekoa izango da.

2.- Ikasturtez igaro gabeko ikasleak edo hezkuntza-sistemara berandu sartu diren ikasleak izateagatik, talderen batek gehienezko ratioa gainditzen badu, araututako irizpide hori betetzat joko da, baldin eta hezkuntza-etapa osorik hartuta bete egiten bada adierazitako batez bestekoa.

3.- Irakasle/ikasgela erlazioa handitzeko aukera izango da, ikasleen ezaugarriei erreparatuta eta ikastetxearen hezkuntza-, hizkuntza eta curriculum-proiektuari, esku-hartze orokorreko eta espezifikoko proiektuei eta curriculum anitzeko programei erreparatuta.

## Bigarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sisteman berandu sartutako ikasleak.

1.- Ikastetxeek ikaslearen adinari, ikasketen historialari, jakintzei eta bestelako ezaugarriei erreparatuko diete euskal hezkuntza-sisteman berandu sartzen diren ikasleak eskolatzeko; hala, eskolatze hori egiteko modu egokiena hautatuko dute, eskolatzea amaitzean oinarrizko gaitasunak eskura ditzaten.

2.- Berandu eskolatutako ikasleren batek gabezia handiak baditu ikastetxeko eskolatze-hizkuntzen jakintzan, berariazko arreta emango zaio ikasle horri, ikaskuntzako berariazko programen bidez. Ikasle talde arruntean egindako eskolaldiarekin batera emango zaio ikasleari hezkuntza-arreta hori, baina ikasle-talde arruntean egin beharko ditu asteko eskola-ordu gehienak.

3.- Curriculum-gaitasuneko mailan bi urte edo urte gehiagoko desoreka dakarten ikasleak haien adinari dagokiena baino maila bat txikiagoan eskola daitezke; betiere, eskolatze horrek aukera emango badie hezkuntza-etapa oro har ezarritako adin-mugen barruan amaitzeko. Ikasle horiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eskolatuko badira, aukera izango da adinez dagokiena baino 2 maila txikiagoan eskolatzeko. Heziketa indartzeko neurriak hartuko dira ikasle horiekiko, eta neurri horien xedea izango da eskola integraziorako laguntza ematea, desoreka edo hezkuntza-aldea murriztea eta ikasketak probetxuz jarraitzeko aukera ematea.

4. Aukera izango da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara egokitzeko arazo larriak dituzten ikasle atzerritarrak zuzenean sartzeko Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programetan; betiere, 15 urte beteak badituzte programaren hasierako urteko abenduaren 31 baino lehen. Kasu horietan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

*LEY ORGÁNICA 2/2006, de 3 de mayo, de Educación (BOE 4/05/2006). Art. 78.*
*REAL DECRETO 1513/2006, de 7 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas de la educación primaria (BOE 8/12/2006). Art. 13.*
*REAL DECRETO 1631/2006, de 29 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas correspondientes a la Educación Secundaria Obligatoria (BOE 5/01/2007). Art. 12.*

## 11. artikulua.- Lehen Hezkuntzako jakintza-arloak.

1. Jakintza-arlo hauek landuko dira Lehen Hezkuntzako ziklo guztietan:

- Ingurune naturalaren, sozialaren eta kulturalaren ezagutza
- Arte-hezkuntza
- Gorputz-hezkuntza
- Gaztelania eta literatura
- Euskal hizkuntza eta literatura
- Atzerri-hizkuntza
- Matematika

2. Hezkuntza-etapa honetako hirugarren zikloan, ikastetxeek bigarren atzerri-hizkuntza bat jaso dezakete curriculumean. Hirugarren zikloko azken mailan, Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntzaren arloa gehituko da, eta jakintza-arlo horrek bereziki landuko du gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna.

3. Arreta berezia eskainiko zaie beste jakintza batzuk eskuratzeko izaera instrumentala duten jakintza-arloei.

4. Jakintza-arloen bidezko antolamendua egingo bada ere, aintzat hartuko da hezkuntza-etapa horren izaera orokorra, adin
horretako ikasleen bizipenei eta ikasitakoa integratzeko premiari erreparatuta. Hezkuntza-etapa horretan, hezkuntza-ekintzak ahalegina egingo du ikasleen bizipenak eta ikasketak integratzeko, eta ekintza hori ikasleen lan-erritmora egokituko da.

*LEY ORGÁNICA 2/2006, de 3 de mayo, de Educación (BOE 4/05/2006). Art. 18.*

*REAL DECRETO 1513/2006, de 7 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas de la educación primaria (BOE 8/12/2006). Art. 7 y Anexo II.*

# I. ERANSKINA

## LEHEN HEZKUNTZAKO ORDUTEGIA

| Orduak astean | Gutxieneko orduak | | | | Erreferentziazko ordutegia, mailaz maila | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Zikloetan | | | Guztira | | | | |
| | 1. | 2. | 3. | | 1.-2. | 3.-4. | 5. | 6. |
| Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza | 5 | 5 | 4 | 14 | 3 | 3 | 3 | 3 |
| Arte Hezkuntza | 3 | 3 | 3 | 9 | 2 | 1,5 | 1,5 | 1,5 |
| Gorputz Hezkuntza | 3 | 3 | 3 | 9 | 2 | 1,5 | 1,5 | 1,5 |
| Gaztelania eta Literatura * | 8 | 7 | 7 | 22 | 4 | 4 | 4 | 3,5 |
| Euskara eta Literatura * | 8 | 7 | 7 | 22 | 4 | 4 | 4 | 3,5 |
| Atzerriko Hizkuntza * | 3 | 4 | 4 | 11 | 2 | 3 | 2,5 | 2,5 |
| Matematika | 5 | 6 | 6 | 17 | 3 | 3 | 3,5 | 3,5 |
| Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza | -- | -- | 1 | 1 | — | -- | -- | 1 |
| Erlijioa | 3 | 3 | 3 | 9 | 1,5 | 1,5 | 1,5 | 1,5 |
| Tutoretza | 2 | 2 | 2 | 6 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| Jolas-ordua | -- | -- | — | — | 2,5 | 2,5 | 2,5 | 2,5 |
| Ikastetxeek askatasunez erabakitzeko | 10 | 10 | 10 | 15 | — | -- | -- | — |
| | 50 | 50 | 50 | 150 | 25 | 25 | 25 | 25 |

*REAL DECRETO 1513/2006, de 7 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas de la Educación primaria (BOE 8/12/2006). Art. 8 y Anexo III.*

**11. artikulua.- Lehen Hezkuntzako jakintza-arloak** (Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntzaren arloa)**.**

Hirugarren zikloko azken mailan, Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntzaren arloa gehituko da, eta jakintza-arlo horrek bereziki landuko du gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna.

*LEY ORGÁNICA 2/2006, de 3 de mayo, de Educación (BOE 4/05/2006). Art. 18.*

*REAL DECRETO 1513/2006, de 7 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas de la educación primaria (BOE 8/12/2006). Art. 4.2.*

## 25. artikulua.- Aniztasunaren trataera Lehen Hezkuntzan.

1. Esku-hartze hezitzaileak aintzat hartu behar du ikasleen ezaugarrien aniztasunaren printzipioa, hori baita ikasle guztien garapena bideratzeko eta ikasle bakoitzaren premiei egokitutako arreta emateko bidea.

2. Ikasleen hezkuntza-premia espezifikoak goiz hautemanda, antolakuntzako nahiz curriculumaren arloko neurriak har daitezke, ikasleen heziketaren indargarri. Neurri hauek har daitezke, besteak beste: laguntza ematea talde arruntean, ikasle-taldeen taldekatze malguak egitea eta curriculumean egokitzapenak egitea.

3. Curriculumeko eta antolakuntzako neurriak hartuko dira hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleek aukera izan dezaten beren ahalmenak ahalik eta gehien garatzeko eta hezkuntza-etapako helburuak lortzeko. Ikasleen hezkuntza-aurrerapen egokia bermatzea da neurrion helburua.

## 33. artikulua.- Ebaluazioa.

1. Lehen Hezkuntzan, ikasleen gaitasunen ebaluazioa banakatua, jarraitua eta orokorra izango da, eta ikasleak curriculumeko arlo guztietan egindako aurrerapenari erreparatuko dio, oinarrizko gaitasunekin lotuta.

3. Oinarrizko Hezkuntzan, hauek izango dira ebaluazioaren erreferentzia nagusiak: curriculumak ziklo eta maila bakoitzeko arlo eta irakasgaietarako ezarritako ebaluazio-irizpideak, ikastetxeko curriculum-proiektuan eta programazio didaktikoetan zehaztuak. Jarduera-planek arlo edo irakasgai bakoitzean finkatutako oinarrizko gaitasunekiko ezarritako ebaluazio-irizpideak erabiliko dira hezkuntza-premia bereziko ikasleak ebaluatzeko.

4.- Ikasleen gaitasunak ebaluatzeko prozesuan, ikasle-taldeei dagozkien irakasle-taldeek ikasleen ebaluazioa landuko dute, tutoreak koordinatuta, eta, beharrezkoa ikusten bada, ikastetxeko orientazio-zerbitzuaren aholkuak jasoz. Lan hori egiteko, ikasleei familiengandik, bai hezkuntza-komunitateko beste eragile batzuengandik. Irakasgai bakoitzeko hasierako kalifikazioa egiteko eskumena eta ardura hura eman duen irakaslearena izango da, eta irakasle-taldeak batera egingo du lan ebaluazio-prozesuko gainerako erabaki orokorrak hartzeko.

*LEY ORGÁNICA 2/2006, de 3 de mayo, de Educación (BOE 4/05/2006). Art. 20.*

*REAL DECRETO 1513/2006, de 7 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas de la educación primaria (BOE 8/12/2006). Arts. 7 y 9.*

**33. artikulua.- Ebaluazioa.**

5.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak erabakiko du zer prozedura-arau bete beharko diren ikasleak ebaluatzeko, eta zenbait jarraibide egin eta zabalduko ditu, ikastetxeei eta irakasleei aukera emateko beren irakaskuntza-jarduna ebalua dezaten.

6.- Ebaluazio jarraituko prozesuan, ikasleren baten aurrerapena ez bada behar bezalakoa, heziketa indartzeko neurriak ezarriko dira. Zikloko edo ikasturteko edozein unetan har daitezke neurri horiek helburua izango da ikasleek heziketa-prozesuan aurrera egiteko ikasketak eskuratuko dituztela bermatzea.

7. Ikasleek ikasitakoaz gain, irakasleek irakaskuntza-prozesua eta beraiek egindako lana ebaluatuko dute, curriculumak araututako oinarrizko gaitasunak eskuratu diren ala ez aztertuz. Ikasturte bakoitzaren amaieran gutxienez, irakasle-taldeak ebaluazio orokorreko emaitzak bilduko ditu, eta prozesua bideratzeko aldaketak proposatu edo xede horretarako erabakiak hartuko ditu.

## 34. artikulua. Mailaz igarotzea.

1. Lehen Hezkuntzako zikloak amaituta eta ebaluazio-prozesuaren emaitzari erreparatuta, **irakasle-taldeak ikasleek zikloz igaroko duten ala ez erabakiko du. Erabaki hori hartzeko, bereziki erreparatuko zaio tutoreak emandako informazioari eta hark adierazitako iritziari**. Hurrengo hezkuntza-ziklora igaroko dira ikasleak lortutzat jotzen badira eskuratu beharreko oinarrizko gaitasunak eta heldutasun maila. Zikloz igaroko dira ikasleak, halaber, ikasleek ikasi ez dituzten ikasketek ez badute eragotziko hurrengo zikloa behar bezala aprobetxatzea. Halakorik gertatuko balitz, laguntza emango zaio ikasleari, aurreko hezkuntza-etapan ikasi gabekoak ikas ditzan. Aurreko atalean adierazitako baldintzak betetzen ez badira, beste urtebete eman beharko du ikaslean ziklo berean. Neurri hori behin baino ez da hartuko Lehen Hezkuntza osoan, oinarrizko gaitasunak indartzeko edo berreskuratzeko berariazko plan batez lagunduta. Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Sailak berariaz araututako jarraibideak betez antolatuko dute ikastetxeek plan hori.

*REAL DECRETO 1513/2006, de 7 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas de la educación primaria (BOE 8/12/2006). Art. 10.*

## 34. artikulua. Mailaz igarotzea.

2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara igaroko dira ikasleak lortutzat jotzen badira eskuratu beharreko oinarrizko gaitasunak eta heldutasun-maila. Hezkuntza-etapa horretara igaroko dira ikasleak, halaber, ikasleek ikasi ez dituzten ikasketek ez badute eragotziko hurrengo zikloa behar bezala aprobetxatzea. Halakorik gertatuko balitz, laguntza emango zaio ikasleari, aurreko hezkuntza-etapan ikasi gabekoak ikas ditzan. Ez badira betetzen aurreko paragrafoan adierazitako baldintzak, ikasleek ezingo dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara igaro; hala ere, Lehen Hezkuntzan behar baino urte bat gehiago eman duten ikasleak igaroko dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara. Azken kasu horretan dauden ikasleak berariazko esku-hartzeko proiektu batean sar daitezke Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari ekitean.

7.- Heziketa-premia bereziak dituzten ikasleen kasuan, haiei dagozkien jarduera-planek egokitu egiten badute curriculuma arlo edo irakasgai batzuetan, plan horrek berak onartu beharko ditu mailaz igarotzeko irizpideak.

8.- Gurasoek edo tutoreek parte hartu eta babestu egin behar dute haien seme-alaben edo tutoretzapekoen heziketa-prozesua, jakin egin behar dute zer erabaki hartu diren ikasleen ebaluazioaren eta mailaigoeren inguruan, eta lagundu egin behar dute ikastetxeek ikasleen heziketa aurrera eramateko hartzen dituzten laguntza- edo indartze neurriak betetzen.

9.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak erabakiko du zer prozedura-arau bete beharko diren ikasleak maila batetik bestera igarotzeko.

## 12. artikulua.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasgaiak.

1.- Irakasgai hauek irakatsiko dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila guztietan:

- Euskal hizkuntza eta literatura
- Gaztelania eta literatura
- Atzerri-hizkuntza
- Matematika
- Gizarte-zientziak, geografia eta historia
- Gorputz-hezkuntza

2.- Horiez gain, lehen mailatik hirugarren mailara bitartean, irakasgai hauek irakatsiko dira:

- Natura-zientziak
- Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza
- Plastika eta ikus-hezkuntza
- Musika
- Teknologiak

Hirugarren mailan, ikastetxeek bi irakasgai hauetan bana dezakete natura-zientzien irakasgaia: batetik, “Biologia eta Geologia”, eta, bestetik, “Fisika eta Kimika”. Irakasgai hori, hala ere, irakasgai bakartzat joko da, ikasleak mailaz igarako duen ala ez erabakitzeko.

*REAL DECRETO 1631/2006, de 29 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas correspondientes a la Educación Secundaria Obligatoria (BOE 5/01/2007). Arts 4 y 5.*

**12. artikulua.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasgaiak.**

3.- Laugarren mailan, lehen puntuan adierazitako irakasgaiez gain, hauek irakatsiko dira:

- Etika eta gizarte-hezkuntza
- Biologia eta geologia
- Fisika eta kimika
- Latina
- Informatika
- Teknologia
- Bigarren atzerri-hizkuntza

Maila horretan, matematika-irakasgaia bi eduki-aukeretan antola dezakete ikastetxeek, ikaslearen egoerari erreparatuta; hau da, ikusita ikasleak maila horretan amaituko duen irakasgaia ikasten ala matematika ikasten jarraituko duen gerora.

4.- Adierazitako irakasgaiez gain, hautazko irakasgaiak, aukera askekoak eta finkatzeko irakasgaiak izango dira, hurrengo atalean eta 26. artikuluan adierazten den moduan.

DBH

**12. artikulua.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasgaiak.**

5.- Laugarren mailan, aukera askeko zortzi irakasgai hauetatik hiru ikasi beharko dituzte ikasleek:

- Biologia eta geologia
- Fisika eta kimika
- Plastika eta ikus-hezkuntza
- Informatika
- Latina
- Musika
- Bigarren atzerri-hizkuntza
- Teknologia

Goian adierazitako zortzi irakasgaiak eskaini beharko dituzte zenbait aukeratan bil daitezke.

7.- Hezkuntza-etapa irakasgaitan antolatuko bada ere, aintzat hartuko da etapari dagokion diziplinartekotasuna eta oinarrizko gaitasunak eta hezkuntza-gaitasun orokorrak eskuratzeko egiten duen ekarpena. Lehen eta bigarren mailan, irakasgaiak arlo orokorretan antola daitezke.

DBH

**26. artikulua.- Aukeramena eta finkatze-jarduerak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan**

1.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumak aukeramenerako eta finkatze-jardueren ezarpenerako eremu bat eskaintzen die ikasleei, eta eremu hori ezartzearen helburua da ikasleen interesei eta premiei erantzutea, ikasketak indartzea ikasleak premia handiena duen gaietan, orientazio-aukerak handitzea, bizitza aktiborako trantsizioa erraztea eta Oinarrizko Hezkuntzako helburuek finkatutako gaitasunak garatzen laguntzea.

2.- Eremu horren baitan, hiru irakasgai-mota eskainiko dira: hautazkoak; hezkuntza indartzekoak; eta aukera askekoak, 12.5 artikuluak araututakoak.

3.- Hautazko irakasgaiak dituzten mailetan, ikastetxeek beti eskaini beharko dute bigarren atzerri-hizkuntza, eta, 3. mailan, kultura klasikoa. Hautazko irakasgaien eskaintza egiteko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak arau bidez onartutakoak eskainiko dituzte ikastetxeek. Eskaintza horrek zabala eta orekatua izan behar du.

4.- Soilik egoera hau gertatzen bada izango da posible ikastetxeak finkatutako aukera askeko irakasgaien edo irakasgai horren multzokatzeen aukeraketa murrizteko: irakasgai horietakoren bat irakasteko nahikoa ikasle ez bada. Dena den, murrizketa hori egiteko, aurrez ezarritako irizpide objektibo batzuk erabili beharko dira.

*REAL DECRETO 1631/2006, de 29 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas correspondientes a la Educación Secundaria Obligatoria (BOE 5/01/2007).Arts. 4 y 5.*

DBH

## 26. artikulua.- Aukeramena eta finkatze-jarduerak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan

5.-. Ikastetxeek informazioa eta orientazioa emango diete ikasleei, Dekretu honetako 12.5. artikuluan adierazitako irakasgaien eta hautazko irakasgaien aukeraketa egiteko. Hala, helburua izango da ikasleak egindako aukeraketa baliagarria izatea oinarrizko ikasketak finkatzeko eta gerorako heziketa-aukerak edo laneratze-aukerak errazteko.

6.- Ikastetxeek zenbait irizpide ezar ditzakete, ikasleak indartze irakasgai bat ikasi dezan, hautazko irakasgaiaren ordez; betiere, beharrezkoa ikusi bada neurri hori hartzea, ikasleak oinarrizko gaitasunak eskura ditzan. Irizpide horiek bat etorri beharko dute ikastetxeak ezarritako curriculumarekin.

12. artikulua.- **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasgaiak** (Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza)**.**

2.- Horiez gain, lehen mailatik hirugarren mailara bitartean, irakasgai hau irakatsiko da Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza.

6.- “Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza” eta “Etika- eta gizarte-hezkuntza” irakasgaiek bereziki landuko dute gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna.

*REAL DECRETO 1631/2006, de 29 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas correspondientes a la Educación Secundaria Obligatoria (BOE 5/01/2007).Art. 4 y Anexo III.*

II. ERANSKINA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO ORDUTEGIA

| Asteko orduak, mailaz maila | Guztizko orduak | | Irakaskuntzako ordutegia | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1.+2.+3. | 4. | 1. | 2. | 3. | 4. |
| Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia | 7 | 3 | 3 | 3 | 3 | 3 |
| Gorputz Hezkuntza | 4 | 1 | 2 | 2 | 1 | 2 |
| Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza | 1 | — | — | 1 | — | — |
| Etika eta Gizabide Hezkuntza | — | 1 | — | — | — | 1 |
| Gaztelania eta Literatura * | 9 | 3 | 4 | 4 | 3 | 3 |
| Euskara eta Literatura * | 9 | 3 | 4 | 4 | 3 | 3 |
| Atzerriko Hizkuntza * | 9 | 3 | 4 | 3 | 3 | 3 |
| Matematika | 9 | 3 | 4 | 4 | 3 | 4 |
| Naturaren Zientziak | 7 | — | 3 | 3 | 3 | — |
| Biologia eta Geologia | — | 3a. 2 or. | — | — | — | 3a. 3 or. |
| Fisika eta Kimika | — | | — | — | — | |
| Teknologiak | 4 | | 2 | 1 | 2 | |
| Plastikaren eta Ikusizkoen Hezkuntza | 3 | | — | 1 | 2 | |
| Musika | 3 | | 1 | — | 2 | |
| Atzerriko Bigarren Hizkuntza | — | | — | — | — | |
| Informatika | — | | — | — | — | |
| Latina | — | | — | — | — | |
| Erlijioa | 5 | 1 | 2 | 1 | 2 | 1 |
| Tutoretza: | 3 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| Aukerakoak edo indartzekoak | 17 | 3 | — | 2 | 2 | — |
| Ikastetxeak erabakitzeko | | | — | — | — | — |
| GUZTIRA: | 90 | 30 | 30 | 30 | 30 | 30 |

*REAL DECRETO 1631/2006, de 29 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas correspondientes a la Educación Secundaria Obligatoria (BOE 5/01/2007). Anexo III.*

DBH

## 27. artikulua.- Esku-hartzeko orokorreko eta esku-hartze espezifikoko proiektuak.

1.- Esku-hartze orokorreko proiektuen bidez, egoera txarreko inguruneetan dauden ikastetxeek erantzun egingo diote ikasleen hezkuntza-premiei, ikastetxea osoan edo hezkuntza-etaparen batean esku-hartze orokorreko planteamendu bat eginez.

2.- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen egoerari aurre egiteko egiten dira esku-hartze espezifikoko proiektuak. Premia horien sorburua izan daiteke ikaslea ahulezia-egoeran dagoen gizarte- edo kultura-ingurune bateko kide izatea, eskolara egokitzeko arazo larriak izatea edo eskola-porrota.

3.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak finkatuko ditu, berariaz egindako deialdien bidez, proiektu horiek zehazteko eta aurrera eramateko baldintzak.

DBH

## 31. artikulua.- Eskolatze osagarriko programak.

1.- Heziketa-prozesuan berariazko laguntzaren beharrean dauden ikasleentzat daude eginak Eskolatze Osagarriko programak. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak izan behar dute programako partaideak, eta, gehienez, 15 urte beteak izan, programaren hasierako urtearen abenduaren 31rako. Ikasle horien laguntza-premiaren sorburua baldintza pertsonal larriak edo estola historiaren nolakotasuna izan behar du, eta programan sartu aurretik agortua egin behar dira, ikasle horiekiko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak aniztasunari arreta emateko aurreikusita dituen neurri guztiak.

2.- Programa horien helburua da ikasle horiek jarrera baikorrak gara ditzaten heziketa-prozesuarekiko, haien ikaskideekiko, irakasleekiko eta gizarte-ingurunearekiko, eta, horien bidez, lehenik eta behin, ikasleek arlo pertsonalean eta gizarte-arloan aurrera egin dezaten eta, gerora, programa amaitu ondoren, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako helburuak lortzeko prozesuari berrekin diezaioten.

3.- Eskolatze Osagarriko Programak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza irakasten duten ikastetxe publikoetan egingo dira, edo, bestela, gizarteko edo hezkuntzako esku-hartzea egiten duten erakunde eta entitateetan. Azken erakunde eta entitate horiek programa osagarri horiei buruzko hitzarmen edo itun bat izenpetuko dute Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin, berariaz egingo diren deialdien baitan.

## 28. artikulua.- Curriculum anitzeko programak.

1.- Ikastetxeek curriculum anitzeko programak antola ditzakete, ezaugarri jakin batzuk dituzten ikasleentzat. Programa horiek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak finkatutako markoaren baitan egin beharko dira, ikasleen egoera ebaluatu ondoren. Hala, programa horien xedeko ikasleak izango dira hezkuntza-etapako helburuak eta oinarrizko gaitasunak nahiz Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eskuratzeko metodologia espezifiko bat jarraitzeko premia dutenak, baldin eta, metodologia horien baitan, curriculumaren edukiak, jarduera praktikoak eta irakasgaiak bestelako modu batean antolatzea komeni bada.

2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailan has daitezke ikasleak programa horietan parte hartzen. Programa horietan parte har dezakete, halaber, bigarren maila amaitu ondoren, hirugarren mailara igarotzeko moduan izan ez eta Oinarrizko Hezkuntzako eskolaldian maila bat errepikatu duten ikasleek. Ikasleak programa horietan sartzeko, beharrezkoa izango da haien ebaluazio akademikoa eta psikopedagogikoa egitea, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarritako moduan, eta, programan sartu aurretik, ikasleari eta haren familiari entzun beharko zaie.

*LEY ORGÁNICA 2/2006, de 3 de mayo, de Educación (BOE 4/05/2006). Art. 27.*

*REAL DECRETO 1631/2006, de 29 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas correspondientes a la Educación Secundaria Obligatoria (BOE 5/01/2007). Art. 13.*

DBH

## 28. artikulua.- Curriculum anitzeko programak.

3.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egokitu egingo du dekretu honek ezarritako curriculuma eta bi esparru espezifikotan antolatuko du. Esparru batek hizkuntzetako eta gizarte-arloko prestakuntza-elementuak bilduko ditu, eta besteak, berriz, prestakuntza-elementu zientifiko eta teknologikoak.

Programa horietan parte hartzen duten ikasleek hezkuntza-etapako, gutxienez, hiru irakasgai ikasi behar dituzte, ahal bada ikasle-talde arruntean, aurreko esparruetatik kanpo. Hizkuntza- eta gizarte-esparruak bere baitan jasoko ditu, gutxienez, gizarte-zientziak, geografia eta historia, gaztelania eta literatura eta euskal hizkuntza eta literatura irakasgaien oinarrizko curriculum-alderdiak. Esparru zientifiko eta teknologikoak, berriz, matematika, natura-zientziak eta teknologia ikasgaiei dagozkienak jasoko ditu. Atzerri-hizkuntza ez bada hizkuntza- eta gizarte esparruan jasotzen, aurreko paragrafoan adierazitako hiru irakasgaietako baten gisan ikasi beharko da.

4.- Curriculum anitzeko programek zehaztu egin beharko dute zer metodologia, eduki eta ebaluazio-irizpide erabiliko dituzten, ikasleek oinarrizko gaitasunak eskuratuko dituztela bermatzeko.

DBH

## 28. artikulua.- Curriculum anitzeko programak.

5.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako oinarrizko gaitasunak eta helburuak izango dira curriculum anitzeko programetan parte hartzen duten ikasleak ebaluatzeko erreferentzia, eta horiek guztiak programa bakoitzaren ebaluazio-irizpide espezifikoetan adieraziko dira.

6.- Programa amaituta, ikasleren batek ez baditu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eskuratzeko baldintzak bete, ikasleak aukera izango du 32.3. artikuluak arautukoa baino urtebete gehiagoz jarraitzeko programan. Aukera hori baliatzeko, irakasletaldeak uste izan behar du ikasleak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eskura dezakeela, eta horrek bat etorri behar du ikaslearen jarrerarekin eta asmoekin.

**29. artikulua.- Hasierako lanbide-prestakuntzako programak.**

1.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak arautu eta zehaztuko du zer baldintza bete beharko diren hasierako lanbide prestakuntzako programak baimendu, eta, horien bidez, gazteen gizarteratzea, eskolatzea eta laneratzea bultzatzeko. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek bideratuko dituzte programa horiek, zuzenean edo akordioak, hitzarmenak edo kontratazioak eginez erakunde publiko edo pribatuekin nahiz pertsona fisikoekin.

2.- Programaren hasierako urteko abenduaren 31 baino lehen hamasei eta hemezortzi urte bitarteko adina beteta duten ikasleak sar daitezke hasierako lanbide-prestakuntzako programetan; betiere, ez badute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eskuratu. Komunitate terapeutikoetan, espetxeetan edo antzeko zentroetan dauden pertsonen kasuan soilik eman daiteke adin hori gainditzeko baimena.

3.- Salbuespenez, eta ikaslearen nahiz haren guraso edo tutoreekin ados jarrita, adin hori hamabost urtera murriztu daiteke, baldin eta, bigarren maila egin ondoren, ikasleak ez baditu hirugarren mailara igarotzeko baldintzak betetzen eta hezkuntza-etapa horretan maila bat errepikatu badu. Ikasle horiek programan sartzeko, ebaluazio akademiko eta psikopedagogiko bat egin beharko da, araututako eran. Halaber, orientazio pertsonaleko eta profesionaleko plan bat egin beharko da, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eskuratzeko moduluak ikasteko konpromisoa hartu beharko dute ikasleek.

*LEY ORGÁNICA 2/2006, de 3 de mayo, de Educación (BOE 4/05/2006). Art. 30.*

*REAL DECRETO 1631/2006, de 29 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas correspondientes a la Educación Secundaria Obligatoria (BOE 5/01/2007). Art. 14.*

DBH

## 29. artikulua.- Hasierako lanbide-prestakuntzako programak.

4.- Hasierako lanbide-prestakuntzako programek erreferentziatzat izan behar dute lanbide-profil bat, eta profil hori gaitasun orokorren bidez eta gaitasun pertsonal, sozial eta profesionalak bidez adieraziko dute. Profil hori adierazteko, azaldutakoez gain, lanbide-gaitasunen eta, hala badagokio, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalaren egungo egituran lehen maila duen gaitasununitateen zerrenda bat jasoko dute programek.

5.- Hasierako lanbide-prestakuntzako programek hiru modulu-mota izango dituzte: lanbide-profileko gaitasunak lantzeko berariazko moduluak, zeinak, hala badagokio, praktika-aldi bat izango duten lantokietan, eta Lanbide Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Sistema Nazionalaren eskakizunak beteko dituzten; oinarrizko gaitasunak zabaltzeko eta hezkuntza-sistematik lan-mundurako urratsa errazteko prestakuntza-modulu orokorrak; eta ikasleak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzera bideratuko dituzten moduluak.

6.- Programa horietako derrigorrezko moduluak gainditu ondoren emandako ikasketa-ziurtagiriek eskubidea emango diote, hala eskatzen duenari, lan-arloko Administrazio eskudunak pertsona horri eman diezazkion titulazioari dagozkion lanbide-gaitasuneko ziurtagiriak.

7.- Artikulu honetako hirugarren atalean adierazitako ikasleentzat izan ezik, borondatezkoa izango da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eskuratzeko moduluak egitea. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikasketa Sailak baimendutako ikastetxeek irakatsiko dituzte modulu horiek.

DBH

## 29. artikulua.- Hasierako lanbide-prestakuntzako programak.

8.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eskuratzeko moduluak hiru arlo hauen inguruan antolatuko da: komunikazio-arloa, gizarte-arloa eta arlo zientifiko eta teknologikoa. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egokitu egingo du Dekretu honek ezarritako curriculuma, eta hiru arlo horien inguruan antolatuko du. Halaber, zenbait prozedura ezarriko ditu graduatu-titulua eskuratzeko moduluak ikasiko dituzten gazteek zer ikasi duten ebaluatzeko, bai eskolatze arruntean, bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, bai programako gainerako moduluetan.

9.- Praktika-aldia lantokietan egiteko fasea gauzatzeko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikasle horien ezaugarrietarako egokituko du 156/2003 Dekretua, uztailaren 8koa, Lanbide Heziketako Prestakuntza Zikloetako Lantokiko Prestakuntzako Moduluaren egikaritza arautzekoa.

DBH

**33. artikulua.- Ebaluazioa.**

2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikasleen ebaluazioa banakatua, jarraitua eta curriculumeko irakasgai, arlo eta moduluetan bereizia izango da, oinarrizko gaitasunak aintzat hartuta. Ebaluazio jarraituko prozesu horren baitan, irakasgai, arlo edo moduluren bati dagozkion gaitasunak eskuratu gabe geratu diren ikasleek aparteko proba bat egiteko aukera izango dute. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarritako prozedura eta baldintzak betez egingo da proba hori.

3. Oinarrizko Hezkuntzan, hauek izango dira ebaluazioaren erreferentzia nagusiak: curriculumak ziklo eta maila bakoitzeko arlo eta irakasgaietarako ezarritako ebaluazio-irizpideak, ikastetxeko curriculum-proiektuan eta programazio didaktikoetan zehaztuak. Jarduera-planek arlo edo irakasgai bakoitzean finkatutako oinarrizko gaitasunekiko ezarritako ebaluazio-irizpideak erabiliko dira hezkuntza-premia bereziko ikasleak ebaluatzeko.

*LEY ORGÁNICA 2/2006, de 3 de mayo, de Educación (BOE 4/05/2006). Art. 28.*

*REAL DECRETO 1631/2006, de 29 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas correspondientes a la Educación Secundaria Obligatoria (BOE 5/01/2007). Arts. 8 y 10.*

## 33. artikulua.- Ebaluazioa.

4.- Ikasleen gaitasunak ebaluatzeko prozesuan, ikasle-taldeei dagozkien irakasle-taldeek ikasleen ebaluazioa landuko dute, tutoreak koordinatuta, eta, beharrezkoa ikusten bada, ikastetxeko orientazio-zerbitzuaren aholkuak jasoz. Lan hori egiteko, ikasleei buruzko informazioa eskuratu beharko da aurretik, bai familiengandik, bai hezkuntza-komunitateko beste eragile batzuengandik. Irakasgai bakoitzeko hasierako kalifikazioa egiteko eskumena eta ardura hura eman duen irakaslearena izango da, eta irakasle-taldeak batera egingo du lan ebaluazio-prozesuko gainerako erabaki orokorrak hartzeko.

5.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak erabakiko du zer prozedura-arau bete beharko diren ikasleak ebaluatzeko, eta zenbait jarraibide egin eta zabalduko ditu, ikastetxeei eta irakasleei aukera emateko beren irakaskuntza-jarduna ebalua dezaten.

6.- Ebaluazio jarraituko prozesuan, ikasleren baten aurrerapena ez bada behar bezalakoa, heziketa indartzeko neurriak ezarriko dira. Zikloko edo ikasturteko edozein unetan har daitezke neurri horiek, ikasteko zailtasunak hauteman bezain laster. Hala, neurri horien helburua izango da ikasleek heziketa-prozesuan aurrera egiteko ikasketak eskuratuko dituztela bermatzea.

7. Ikasleek ikasitakoaz gain, irakasleek irakaskuntza-prozesua eta beraiek egindako lana ebaluatuko dute, curriculumak araututako oinarrizko gaitasunak eskuratu diren ala ez aztertuz. Ikasturte bakoitzaren amaieran gutxienez, irakasle-taldeak ebaluazio orokorreko emaitzak bilduko ditu, eta prozesua bideratzeko aldaketak proposatu edo xede horretarako erabakiak hartuko ditu.

DBH

## 34. artikulua. Mailaz igarotzea.

3. **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako mailak amaituta eta ebaluazio prozesuaren emaitzari erreparatuta, ikasleak mailaz igaroko diren ala ez erabakiko du irakasle-taldeak. Ikasle-taldeetako irakasle guztiek osatuko dituzte irakasle-taldeak, eta erabakiak irakasle guztien artean hartuko dituzte. Tutoreek egingo dituzte irakasle taldeetako koordinazio-lanak.**

Ikasleak maila batetik bestera igaroko dira ikasitako irakasgaietako helburuak gainditzen badituzte edo gehienez ere bi irakasgaitan ebaluazio negatiboa izan badute; hiru jakintzagaitan edo gehiagotan ebaluazio negatiboa izan badute, aldiz, ikasturtea errepikatu beharko dute. Salbuespen gisa, hiru irakasgaitan ebaluazio negatiboa duen ikasle bat hurrengo mailara igarotzeko erabakia har dezake irakasle-taldeak, betiere, irakasle-taldearen ustez jakintzagai horien izaera dela-eta ikasleak hurrengo ikasturtea arrakastaz egiteko arazorik izango ez badu, jakintzagaiak errekuperatzeko aukera egokiak baditu eta hurrengo ikasturtera igarotzea ikaslearen bilakaera akademikoaren onerako bada. Irakasgai guztiak gainditu gabe hurrengo ikasturtera igarotzen direnek heziketa-prozesua indartzeko irakasle-taldeak ezarriko duen programa egin beharko dute (ikasi gabekoa ikastea izango da programa horren helburua), eta indartzeko programa horiei dagozkien ebaluazioak gainditu beharko dituzte.

*LEY ORGÁNICA 2/2006, de 3 de mayo, de Educación (BOE 4/05/2006). Art. 28.*

*REAL DECRETO 1631/2006, de 29 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas correspondientes a la Educación Secundaria Obligatoria (BOE 5/01/2007). Art. 11.*

DBH

## 34. artikulua. Mailaz igarotzea.

4.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, mailaz igarotzen ez diren ikasleak urtebete gehiago eman beharko dute maila berean edo hezkuntza-arloko berariazko esku-hartzeko proiektu batean sartu beharko dute, igaro gabeko maila Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen maila bada. Neurri horiek hartuta, plan bat egin beharko da, berariaz, ikasle bakoitzarentzat, aurreko ikasturtean hautemandako zailtasunak gainditzeko. Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Sailak araututako jarraibideak betez antolatuko dute ikastetxeek plan hori. Ikasleak behin bakarrik errepikatu ahal izango du ikasturte bera, eta gehienez bi maila errepikatu ahal izango ditu etaparen barruan. Salbuespenez, bigarren aldiz errepika dezake ikasle batek laugarren maila, hezkuntza-etapako aurreko mailak errepikatu ez baditu.

5.- Bigarren maila-errepikapena Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken mailan egin behar badu ikasleak, urtebetez luza daiteke Dekretu honetako 32.3. artikuluak araututako adin-muga, baina, horretarako irakasle-taldeak uste izan behar du ikasleak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eskura dezakeela, eta horrek bat etorri behar du ikaslearen jarrerarekin eta asmoekin.

DBH

## 34. artikulua. Mailaz igarotzea.

6.- Maila errepikatu ondoren, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak ez baditu betetzen hurrengo mailara igarotzeko baldintzak, irakasle-taldeak, orientazio-taldeak aholkatuta eta familiarekin hitz egin ondoren, egoki dena erabakiko du, egoera hauetan dauden aukeren artean, eta, betiere, ikaslearen premiei erreparatuta:

a) ikasleak lehen maila egin badu, bigarren mailara igarotzea erabakiko da, heziketa indartzeko neurriak hartuz, edo, bestela, hezkuntza-arloko berariazko esku-hartzeko proiektu batean sartuko da.

b) ikasleak bigarren maila egin badu, hauen artean aukeratuko da: hirugarren mailara igarotzea, hasierako lanbide-prestakuntzako programa batera igarotzea, edo bi mailako curriculum anitzeko programa batean sartzea. Azken bi aukeretako bat hautatuz gero, ikasleak 15 urte beteak izan behar ditu ikasturtearen hasierako egutegiko urtean.

c) ikasleak hirugarren maila egin badu, aukeran izango da laugarren mailara igarotzea, hasierako lanbide-prestakuntzako programa batera igarotzea, edo ikasturteko bateko iraupena izango duen curriculum anitzeko programa batean sartzea.

**34. artikulua. Mailaz igarotzea.**

7.- Heziketa-premia bereziak dituzten ikasleen kasuan, haiei dagozkien jarduera-planek egokitu egiten badute curriculuma arlo edo irakasgai batzuetan, plan horrek berak onartu beharko ditu mailaz igarotzeko irizpideak.

8.- Gurasoek edo tutoreek parte hartu eta babestu egin behar dute haien seme-alaben edo tutoretzapekoen heziketa-prozesua, jakin egin behar dute zer erabaki hartu diren ikasleen ebaluazioaren eta mailaigoeren inguruan, eta lagundu egin behar dute ikastetxeek ikasleen heziketa aurrera eramateko hartzen dituzten laguntza- edo indartze neurriak betetzen.

9.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak erabakiko du zer prozedura-arau bete beharko diren ikasleak maila batetik bestera igarotzeko.

DBH

# 35. artikulua.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua

> **Euskara eta gaztelaniaz ez da gauza berdina esaten. Hau EZ dator bat RD 1631/2006 aren 15. atalak dioenarekin, gaztelanikoa –ordera- batera doa.**

1.- Derrigorrezko bigarren hezkuntza amaitze… …rtu dituzten ikaslek Derrigorrezko Bigarren H…

2.- Hezkuntza-etapa horretako irakasgai guztiak gainditzen ditu… …errigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua jasoko dute. Halaber, titulu hori lortuko dute, ikasturtea amaituta, irakasgai batean edo bitan ebaluazio negatiboa jaso duten ikasleek. **Salbuespenez**, titulu hori lortuko dute hiru irakasgaitan ebaluazio negatiboa jaso duten ikasleek, baldin eta irakasle-taldeak uste badu, irakasgaien izaerari eta garrantziari erreparatuta, irakasgai horiek ez gainditu arren, ikasle horiek oinarrizko gaitasunak eta etapako helburuak lortu dituztela. **Titulua lortu ez duten ikasleek aukera izango dute, hurrengo ikasturtean, aparteko proba bat egiteko, gainditu gabeko irakasgaietan.**

3.- Curriculum anitzeko programak egiten dituzten ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua jasoko dute, baldin eta programako jakintza-arlo eta irakasgai guztiak gainditzen badituzte. Halaber, titulu hori lortuko dute, bi esparruak gaindituak izan baina irakasgai batean edo bi irakasgaitan ebaluazio negatiboa jaso duten ikasleek. Salbuespenez, titulu hori lortuko dute hiru irakasgaitan ebaluazio negatiboa jaso duten ikasleek, baldin eta irakasle-taldeak uste badu ikasleek oinarrizko gaitasunak eta etapako helburuak lortu dituztela.

*LEY ORGÁNICA 2/2006, de 3 de mayo, de Educación (BOE 4/05/2006). Art. 31.*

*REAL DECRETO 1631/2006, de 29 de diciembre, por el que se establecen las enseñanzas mínimas correspondientes a la Educación Secundaria Obligatoria (BOE 5/01/2007). Art. 15.*

**35. artikulua.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua**

4.- Hasierako lanbide-prestakuntzako programetan parte hartu duten ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortuko dute, baldin eta horretarako gainditu behar diren moduluak gainditzen badituzte.

5.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egiten duten eta graduatu titulua lortzen ez duten ikasleek egindako urteak jasoko dituen eskola-ziurtagiria jasoko dute. Hasierako lanbide-prestakuntzako programaren bat egin badute, gainditutako moduluak jasoko ditue ziurtagiri bat jasoko dute.

6. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-tituluak batxilergora, erdi-mailako lanbide-heziketara, arte plastikoetako eta diseinuko erdi-mailako zikloetara, erdi-mailako kirol irakaskuntzetara eta lan-mundura joateko aukera emango du.


ESKERRIK
ASKO
Oinarrizko Hezkuntzarako
Dekretu Berria